



BIOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUA

Irakaskuntza-baliabideak

Eskola magistralak, ikasgelako praktikak, mintegiak, ordenagailuko praktikak eta laborategiko praktikak emateko, Fakultatean eskuragarri izango dituzu:

- **56** irakaskuntza-gela, guztiak irakasle-mahaiko ordenagailuz, kainoiaz, pantailaz, gardenkientzako erretroproiektoreaz eta arbelaz hornituak.
- **9** informatika-gela, kainoiaz, pantailaz, arbelaz eta ordenagailuz (21-40 bitarte, gelaren arabera) hornituak. Bertako ekipamendu informatikoetan instalatuta daude Biokimika eta Biologia Molekularreko ikasgaietako ordenagailu-praktikak egiteko beharrezkoak diren programak.
- **73** irakaskuntza-laborategi, ongi hornituak, graduko zenbait kurtsotan egin beharreko laborategiko praktiketarako beharrezko material guztiarekin. Laborategi batzuetan 5S metodologia ezarri da.

Fakultatean honako hauek ere aurkituko dituzu:

- Ikasteko guneak, lehenengo solairuko hall nagusian eta 0.14 eta 2.12 geletan.
- Talde-lanak egiteko 2 mintegi (A5.P1.1 eta A5.P1.2 geletan, A eraikineko lehen solairuan).
- Informatika-gela bat, zentroko ikasle guztiek erabili ahal izango dutena.

[Lotura](#) honetan, zentroko gela eta zerbitzuei buruzko xehetasun gehiago aurkituko dituzu:

Bestalde, ikasleek UPV/EHUko Bizkaiko campuseko [liburutegi](#) nagusia (Fakultatearen parean dagoena) erabili ahal izango dute:

- Liburu zientifikoak, egin beharreko irakasgaien bibliografia barne hartzen dutenak, maileguan hartzeko aukera.
- Hemerrotekarako sarbidea, aldizkari zientifikoaren funts zabala kontsultatu ahal izateko.
- Ikasteko gelak erabiltzeko aukera.

Gainera, zentroko irakasleek [UPV/EHUko OCW proiektuan](#) kolaboratu dute, eta ematen dituzten irakasgaiei lotutako materiala eskuragarri jarri dute.

Azkenik, irakasgai askotan, [eGela](#) izeneko ikasgela birtuala erabiltzen da irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Bertan, irakasleek onlineko material ugari jartzen dituzte ikasleen eskura, ikaskuntza aktiboa sustatzeko asmoz: apunteak, ariketa eta problemak, egin beharreko jarduerak,...